

## BERRI OROKORRAK

2019ko urriaren 4ean 4. zenbakia

### 1.-2019/20 ikasturteko Eusko Jaurlaritzako ikasketa-bekak.

2019/2020 ikasturterako beka eskatzeko epea **irailaren 30etik urriaren 29ra** bitarte irekita egongo da.

- ❖ **2018/19 ikasturtean beka eskatu zuten familiek** era telematikoan lor dezakete inprimakia osatuta. Datuak baieztatu edo beharrezkoak diren aldaketak egin ostean, sinadura digitalarekin amaitu dezakete eskaera edo, agiria inprimatu eta ikastetxera eraman eskaera hezkuntzara bideratzeko. Beti ere, ordua eskatu ondoren.
- ❖ **Eskaera berria** egiteko aukera desberdinak daude:
  1. Ikastolan bertan. Horretarako, aurretik **hitzordua eskatu behar da** idazkaritzan.
  2. Era telematikoan. Guraso edo tutoreak <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus> helbidean. Inprimakia inprimatu eta sinatu ondoren, idazkaritzara ekarriko du ikastolak eskaera baliozta dezan.
  3. On-line etxetik. Aurreko aukerako pauso berdina jarraituko dira, baina DNI elektronikoarekin sinatuko da eta zuzenean Hezkuntzan jasoko dute eskaera.

Informazio guztia [www.hezkuntza.net](http://www.hezkuntza.net) helbidean ikus dezakezue. Edozein zalantza argitzeko edo argibide gehiagotarako idazkaritzara deitu.

### 2.-2019/20 ikasturteko Udarregiko beka-sistema.

Udarregi Ikastolak, irakaskuntzaren finantzazioari laguntzeko asmoz, beka-sistema propioa eskainiko die urtero bere bazkideei. Beka-sistemaren baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta diru-laguntzaren zenbatekoaren inguruko xehetasunak idazkaritzan eta ikastolako webgunean jaso ahal izango dira.

#### **Helburua:**

- Seme-alabak Udarregi Ikastolan matrikulatzen laguntzea.
- Ordaintzeko oinarritzko arazoak dituzten ikastolako bazkideei laguntzea.

#### **Diru-laguntza motak:**

- Kuota murrizketa.
- Egoera berezietarako, kuoten %100 estalita egongo da.

#### **Beka eskaera-epea:**

Urriaren 29a bitarte.

### 3.-Nafarroa Oinez 2019.

- **Urriaren 20an Tuteran, Argia ikastolak antolatuta Nafarroa Oinez egingo da eta zure laguntza behar dugu.**

Egunean lan egiteko gelakideekin, lagunekin, familiarekin apuntatu zaitezke. Zurekin lortuko dugu!

Lotura honen bitartez txanda batera edo bestera apunta zaitezke:

<https://forms.gle/ZnULsNAQFChAmYlX9>

Zure lagunei honen berri eman, zure inguruko en artean mezu hau zabaldu.

Argia ikastolak behar zaitu. Izan Argi!

Aldez aurretik eskertuz, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

- **Nafarroa Oinezera joateko garraio zerbitzua:** NAFARROA OINEZ 2019 jaira joateko bus ofizial zerbitzua egongo da zirkuitoraino bertaraino, joan-etorri erosoena eta jasangarriena baita, BusUP zerbitzuari esker. Ruta-zerrenda ikusgai dago, aukera zurea da eta egin zure proposamena.

Adi! Antolaketarako garaiz ibiltzea derrigorrezkoa da. Informazioa [www.nafarroaoinez.eus](http://www.nafarroaoinez.eus) edo BusUp <https://nafarroaoinez.busup.com/home>

## 4.-Kilometroak 2019.

Igande honetan Kilometroak 2019 ospatuko da Zarautzen. Anima zaitetze eta pate hartu!

# OHARRAK ETAPAKA



EZ dago berririk.



### 1.-Zorriak.

HH 4ko Ikasle batzuegan zorriak somatu ditugu.

**Norberak bere haurrekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**


Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

**Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:**


1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
  - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
  - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingariak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
  - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
  - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Aste bat pasa ondoren tratamendua berri aurrekoan bezalaxe.

**NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.**



Ez dago berririk.



### 1.-DBH 3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduta.

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak 2020ko udan Erresuma Batuan, Irlandan eta Frantzia hiru asteko egonaldia eta ikastaroak egiteko deialdia argitaratu da.



Inork eskabidearen inguruko informazio gehiago nahiko balu, idazkaritzan jaso dezake edota [www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) web-orriaren bidez.

Eskaera aurkezteko epea **urriaren 25a** arte.

## **2.-Gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntza.**

Eusko Jaurlaritzak, unibertsitatez kanpoko mailletako ikasleei zuzenduta, gailu digitalak eskuratzeko diru-laguntzak emango ditu. Eskaera egiteko epea **urriaren 25a** bitarte egongo da irekita.

Eskakizunak:

- 2018-19 ikasturtean eskola materialaren atalean bekaduna izatea.
- Aurreko deialdietan diru-laguntza hori bera jaso ez izana.
- Era telematikoan egitea.
  - a. [Ziurtagiri digitalaren bidez](#)  NAN, lizenpe txartela... edo itsasontzien jokoa erabilita (B@kq). Modalitate horretan **ez** da eskabide-formulariorik ikastetxean aurkeztu behar.
  - b. [Sisteman erregistratuta](#)  helbide elektronikoko baten bidez **eta honako bide hauetako bati** jarraituta: HIA (Hezkuntzako Identifikazio Agiria) / NAN. **Beharrezkoa** da ikastetxeko idazkaritzan urriaren 25a baino lehen aurkeztea.
  - c. Ikastetxean bertan: modu presentzialean.

Informazio osoa: [www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/dispositivos-digitales/web01-tramite/eu/](http://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2019/dispositivos-digitales/web01-tramite/eu/)